

Begiratzén ahaztuta

Karmeie Mitxelena Etxebeste

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2012



Zumaiko Udala

*enskar
txanpan*



Begiratzén ahaztuta

Karmele Mitxelena Etxebeste

Julene Azpeitia 25. ipuin lehiaketa

2012

1. saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko azaroan.

© Karmele Mitxelena Etxebeste (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Irailaren 18a

Itxi egin dut gortina beltza. Zapatak erantzi ditut lehenengo, bat, eta bi, prakak kentzeko gero. Hotz sumatu dut lurra, nire galtzerdi izerdituekin kontrastean, eta izter biluztu berriak oilo ipurdiz jantzi zaizkit aire girotuaren freskura ufadekin. Hozkirria gorputzean. Esekilekutik zintzilikatutako bakeroak hartu eta probatu egin ditut. Gogotik saiatu naiz hogeita hemezortziaren brageta ixten, behin eta berriro egin dut botoia dagokion zuloan sartzeko ahalegina. Alferrik, ez da iritsiko. Ispiluari begira geratu naiz, geldi, munduaren akaberari begira banengo bezala.

Aurrez aurre, aldez, bizkarrez saiatu naiz gertatzen denaren inguruko azalpen logiko bat aurkitzen, baina begiok ez dute aparteko ezer topatu. Dena ohiko moduan dagoela dirudi, ohiko kurbak eta formak baino ez ditut ikusten. Eta ispilu mutuak ere ezer gutxi du esateko, ez du ahoa zabaldu nahi, badaezpada, kontatu behar ez denik ez kontatzeko edo. Umore ona barru-barruan nola erretzen ari zaidan sentitu dut orduan, eta musika madarikatu dut, dendara sartu naizenetik kantu bera entzuten ari naizela baitirudi. Aitzakia ona nire umore aldaketa justifikatzeko. Amorratuta, galtzak presaka erantzi eta hauen etiketa amaigabeari erreparatu diot, nahastuta hartutako hogeita hamasei bat topatzeko esperantzan. Hogeita hemezortzia.

Tanga eta kamiseta hutsean geratu naiz nire ipurmasailei begira. Perspektiba guztietatik aztertu ditut berriz, ia perspektiba berriak asmatzeraino. Ohiko haragiak baino ez ditut topatu beste behin, ohiko forma borobilaz mozorrotuta. Aldez jarri eta kamiseta igo dut, arnasa hartu, bota, hartu eta ihes egiten utzi gabe mantendu dut sabel planoan sakonune bat sortuz. Saihets-hezur bakoitza kontatu ahal izateraino eutsi diot aireari biriketan, umore kiskalia estutzeraino. Arnasa askatu eta gainazal lau bihurtu dut berriz sabela. Kabitzen zaizkidan galtzak eta zapatak jantzi ditut haserre, ispilua bistatik galdu gabe.

Gortina baztertu eta probalekutik irten naiz bakeroak besoan zintzilik. Berrogeia probatzeko tentazioak zimiko egin dit barruan, baina nire urguilu minduak ez dit horrelakorik egiten utzi. Ilara luzea itxaron dugu beraz biok, urguiluak eta nik, eta biok batera ordaindu ditugu lotzen ez ditudan praka berriak.

Lotsatuta egin dut erosketa, dendariak erosi berri ditudan galtzak txikiak ditudala jakingo balu bezala, ilarakoek inozoa naizela pentsatuko balute bezala. Koloretako kamisetak begiratzen ari den neska betaurrekodunari

irribarre batek ihes egin diola ere iruditu zait une batez. Ezpainak muturtuta, kopeta ilunduta eta umorea erraustuta egin dut ihes dendatik, erosketa poltsa erdi ezkutuan.

Etxerako bidean ezin izan ditut begiak eskaparateetatik aldendu. Guztietan aztertu dut nire kristalezko irudia, ustez disimuluz. Gurutzatu dudan pertsona bakoitzak neraman poltsari begiratzen diola iruditu zait, mundu guztiak barrukoaren berri jakingo balu bezala; eta honek, etxera iristeko gogoak eta presak areagotu baino ez dizkit egin.

Atea itxi bezain laster, zapatak kendu eta erdi botata utzi ditut lurrean. Zuzenean logelara joan naiz enegarren aldiz ispilua bisitatzera. Armairutik arroparik estuenak atera eta banaka-banaka denak probatzen hasi naiz. Panikoa, estresa, urduritasuna, negar egiteko gogoak.

Gero eta arropa pila handiagoa egin dut ohe gainean. Ispiluaren aurrean aurkitutako oihal mota denak probatu ditut eta ez dirudi nire gorputza aldatu denik. Baliteke praka berriena izatea arazoa, ez dira beti neurri guztiak berdinak izaten. Nahiago dut hori pentsatu.

Sarraila hotsa entzun dut. Loredun soineko urdina kendu eta etxeko arropa zaharrak jantzi ditut berehala. Unai nire sarrerako zapatekin nola trabatu den sumatu dut. Ohean botatako arropa denak hartu eta armairuan sartu ditut bultzaka, korrika, presaka. Atea itxi eta kaosa estali dut.

Urriaren 22a

Argia itzali dut arropak kentzen hasi baino lehen. Azkenaldian ez naiz ondo sentitzen logelako bonbillaren argipean, biluztu aurretik sentitzen naiz biluzik, deseroso, inguruan begi nini zuriak bueltaka izango banitu bezala. Iluntasuna da estaltzen nauen bakarra, lasaitzen nauena, kamuflatzen nauena, eta ilunpean egiten dugu.

Bi itzal amodioa egiten, ez gara beste ezer argirik gabe. Unai dio dieta hasi nuenetik arraro xamar nabilela, erretxinduta, ihesian, gehiegi argaldu naizela, eta gehiago jaten hasteko. Sumindu egiten naiz, ez dudalako zer erantzun jakiten, ez dakidalako erantzun behar nukeen ere, eta orduan jada gustuko ez nauen galdetzen diot, ezetz erantzuteko ezgauza dela dakidalako. Baietz erantzuten dit beti, atsegin nauela, eta musuka hasten zait masailetan, ezpainetan, lepoan, bularretan... gaurko moduan, eztabaida ohean amaitzeko.

Berotasunez izoztuta geratu gara elkar besarkaturik, izerditan, ahituta, mugitzeko perezaz. Kopeta gainean musu eman eta maite nauela xuxurlatu dit, hitz egiteko nekatuegia dagoenaren ahots isilaz. Nik behatzekin aurpegia orraztu diot, laztandu, marraztu, bere edertasuna eskuarekin harrapatu nahian bezala.

Gau osoa emango nuke begira, begira bakarrik, beste ezertan segundorik alferrik galdu gabe; begira bere arnasari, lasaitasunari, loari. Eta ni begira hasterako lokartu egin da, uste bezain azkar. Astiro kendu ditut gainetik bere beso pisutsua lehenengo, eta izara hezea gero. Biluzik nagoela gogoratu dut.

Inor begira ez dudala aprobetxatuta, ohetik altxa eta ilunpetan lurrera botatako arropen bila hasi naiz, iluntasunean ikusten diren iluntasunagoen bila. Hotz dago lurra, eta airea, larruazal izerditu honentzat batez ere. Hanka-puntetan joan naiz komunerantz arropak eskuan, isilik nahi nuen, egurrezko zoruak nire pauso bakoitza salatu badu ere. Atzera begiratu dut badaezpada, begiak itxita jarraitzen du.

Kaxoitik makillajea kentzeko toallitak atera eta aurpegia garbitzen hasi naiz poliki. Egunetik egunera zailagoa egiten zait mozorroa ezabatzea, azpian aurkituko ditudan hogeita zortzi urteen beldur beti. Ispiluaren aurreko momentu hauek gero eta luzeagoak ari dira bihurtzen, eta betzuloak gehiegi nabarmentzen hasi zaizkit dagoeneko, loari ostutako orduen seinale.

Hortzak garbitu eta betzuloak eta zimurrak estaltzeko kremazko esperantza faltsuak zabaldu ditut aurpegian, gauero lortzen dute ni engainatzea. Dutzako kristalezko manpararen aurrean zutik ipini eta nire gorputzak azken lau orduetan aldaketarik jasan ez duela frogatu dut. Aldez jarri naizenean, ipurdia forma borobila galtzen ari ote den iruditu zait une batez. Baina ez, begi nekatu hauen efektua da.

Pijama jantzi eta hanka-puntetan egin dut berriz lehengo bide bera oheraino, lasaiago orain, inork biluzik ikusteko arriskurik gabe. Isil-isilik sartu naiz, izara oraindik epelak ahalik eta astiroen laztanduz. Unairen loa entzuten da, iratzargailuaren segundo bakoitza eta bizilagunaren telebista. Begiak itxi eta maindireetan ezkutatu naiz.

Abenduaren 22a

Bostetan Madisonen geratuta zeuden kafea hartzeko. Bostak eta hogeita bat, eta ezin dut gehiago. Hirugarren zigarroa bukatu dut oraintxe, eta laugarrenerako tentatuta nago jada. Azkenaldian ezaguna zaidan haserre urduritu hau barrua jaten ari zaidala sentitzen dut, tabakoak erre ez duena erretzen. Jeloskor nagoela esango luke batek baino gehiagok, baina ni ez naiz inoiz jeloskorra izan.

Berokirik lodiena jantzi eta kalera abiatu naiz barrurik gabe gelditu aurretik. Ez da ez naizela fidatzen, besterik gabe ez zaizkit gustatzen bi astean behin Mainerrekin izaten dituen hitzorduak. Badakit aspalditik lagunak direla, bai, baina ni ez naiz aspaldiko lagunekin kafea hartzeko geratzen; ez hainbestetan behintzat. Gainera, mutilarekin utzi berri du. Ez zait gustatzen neska hori.

Ondo estalita atera naiz kalera. Eskuak poltsikoetan gorde eta aurpegia bufanda gorriaren atzean ezkutatu dut, begiei baino ez diet eman biluzik ibiltzeko pribilegioa. Zeruak elurra egin behar duen egunetan hartzen duen kolore berezi hori hartu du. Gaur elurra egingo du, gaur zerua izoztuko da, eta airea, eta lurra, eta ni; hotzak akabatzen nago.

Hotzak min egiten dit begietan eta betazalak jaistera behartu nahi nau. Nik gogor eutsi nahi izan diot, eta hala egin dut, malkoekin paisaia lausotu zaidan arte. Orduan begiak itxi eta betile artetik bufandaren gorriak xurgatu dituen bizpahiru malko erori zaizkit.

Ezin dut ez egin. Behin baino gehiagotan saiatu naiz ez begiratzen, lehen bezala begiratzen, baina ezinezko zait, begiratzen ahaztu zait. Nire irudia islatu dezakeen edozertara joaten zaizkit begiak. Kanean ez dut eskaparateak eta leihoak beste ezer ikusten, eskaparateak eta leihoak nire irudiarekin; bufanda gorriak eta begi berdeak nonahi.

Nire gorputzari begira gerturatu naiz urrutitik tabernako kristalera, nire gorputz gero eta hurbilagoari begira, aurpegiari begira, begiei begira, eta sudurrarekin ukitu dut Madison. Nire begietatik harago begiratu dut, Unairen jertse grisaren bila hasi orduko hatsak kristala lausotu du ordea, barrukoa ezkututzen saiatuko bailitzan. Eskua poltsikotik atera eta kristala garden bihurtu dut berriz. Ez daude hemen.

Barruak su hartu dit, amorratzen naizenero bezala. Eskua poltsikoan sartu eta etxerantz abiatu naiz. Zerua elurretan hasi da, eta ni negarrez; eta oraingoan ez da hotza nire begiei min egin diena.

Ordu bat eta hamazazpi minutu egon naiz bere zain. Non egon den galdetu diot iritsi bezain laster; lehertu egin naiz Madison entzun dudanean. Harrituta begiratu dit bertan egon naizela oihukatu diodanean, zergatik maite ez nauen galdetu diodanean. Gezurti hutsa dela esan diot, ez nauela gustoko, ez duela ni engainatzeko eskubiderik, baina berdin zaidala, nahi duena egiteko, nik ez dudala maite.

Eta ez diot hitz egiten utzi, eta ez ote duen ezer esan behar galdetu diot. Eta isildu naizenero Olentzerotarako nire oparia erostera joan direla esan dit. Eta nik ezetz esan diot, garrasi egin diot. Lasaitzeko eskatu dit, eta nik ezetz, eta lasai nagoela, baina ez nago lasai, ez dudalako lasai egon nahi. Eta ni besarkatzen saiatu da, eta nik besoak ukatu dizkiot, eta pauso bat eman dut atzera. Eta eskuarekin logelako ispilua jo dut. Eta lurrean zazpi urtetarako zorte txarra. Eta odola.

Otsailaren 24a

Ez dut zalantzarik egin, eskaileretan gora abiatu naiz igogailuari ezikusiarena eginez, ondo etorriko zait ariketa fisiko pixka bat. Azken bi asteotan gutxiago jaten ari naiz, baina nire gorputzak berdin jarraitzen du; nolabait kendu behar ditut gaineratik soberan ditudan kilo hauek.

Baranda inoxidablea aprobetxatu dut nire islarekin topo egiteko, eskutik heldu eta berarekin igotzeko, nire buruari begira igotzeko. Berehala iritsi naiz lehenengo solairura, baina bigarreneko eskaileretan, arnasa estutzen hasiak pausoa motelarazi dit. Kirol gehiago egiten hasi behar dut.

Nire islarekin batera ailegatu naiz hirugarrenera, bihotza eztairitik irtetear. Segundo batez mundutik isolatu nauen zorabio txikiak oreka galduarazi dit ia, eta xukatu nahi banu bezala estutu dut baranda ezker eskuaz lurrera ez erortzeko. Ez da ezer larria, azken egun hauetan behin baino gehiagotan gertatu zait; nekea izango da.

Prakak bere lekura bueltatu ditut txirrina jo aurretik. Lasaiegi geratzen zaizkit iazko bakero hauek, eta beheegi erortzen zaizkit gaur bezala gerrikorik janzten ez dudanean. Arropa berria behar dut.

Dena bere lekuan daramadala ziurtatu, txirrina jo eta urre koloreko plakari begira geratu naiz letren atzeko nire aurpegia behatzen. Nahi baino azkarrago zabaldu du atea, eta bere aurpegiak ordezkatu du nirea. Galdetuko balidate, nire betzuloen koloreaz eta aurpegiko zimur kopuruaz hitz egingo nuke, baina ez nuke plakan idatzita dagoena esaten asmatuko. Ez dakit, sekula ez diot arretarik ipini. Teresaren izen-abizenak egongo direla pentsatzen dut, baina badaezpada ez nuke lepoa jokatuko.

Besaulkian eseri eta kafea eta pastak eskaini dizkit. Ez dudala goserik esan diot. Berak zurbil nagoela, eta nik ezetz; eta berak ea ondo nagoen, eta nik baietz; eta berak argaldu egin naizela, eta nik ezetz; eta ea gaur bazkaldu dudan, eta ni isilik.

Astebete pasa da azken kontsultatik. Unaik behartuta etorri nintzen lehendabizikoz, gertatzen zitzaidanari izena jartzeko beldurrez, gaixo nengoela entzuteko beldurrez, eta Unaik behartuta etortzen jarraitzen dut. Kaptotrofilia, hala diagnostikatu zidan Teresak. Ordura arte ez nekien ispiluari etengabe begiratzea gaixotasun bat izan zitekeenik. Kaptotrofilia, polita da izena.

Ordu eta erdiko sesioaren ondoren agurtu gara. Atea itxi arte itxaron dut buelta eman eta plakan jartzen duena irakurtzeko. Teresa Rubio Sein, psikologoa. Ez nenbilen gaizki. Plakari begira geratu naiz, letrak ahaztuta berriz; eta horrela egon naiz tarte batean, goiko pisutik pauso batzuk hurbiltzen entzun ditudan arte. Eskaileretara zuzendu naiz azkar, ez dut inor topatu nahi.

Etxera iristen nintzenerako hemen egongo zela esan dit lehen, baina ez dago inor. Gorroto dut gezurrak zin egiten dizkidanean, nola gorroto gainera. Eztarria korapilatu eta barruan gordetzen dudan malko bakoitza bertan tratatzen zaidala sentitzen dut, mina irensten dut, mina puska handitan. Sofan eseri, eskuak gurutzatu eta begiak beteta itxaron dut itzulera berantiarra.

Lanetik ateratzerakoan Josurekin topatu eta hizketan aritu direla esan dit etxera iritsitakoan, horregatik berandutu zaiola. Ez diot sinetsi, aitzakia merkea iruditu zait, merkeegia ezer justifikatzeko. Berdin zaiola oihukatu dit orduan, nazkatuta dagoela, aspertuta nire txorakeriekin. Inoiz ez bezala haserretu da, eta ni lehenagotik nengoen haserre, baina berriro haserretu naiz bera haserretu delako.

Luzatu egin zaigu eztabaida, eta gauza berak errepikatzeaz aspertu garenean amore eman eta isildu egin gara. Pertsianak jaitsi eta pijama jantzi dut. Nekatuta sartu naiz ohera, hustuta. Egongelan geratu da bera, ez da nirekin lotara etorri.

Otsailaren 25a

Esnatu bezain laster logelako atletik burua atera eta isil-isilik zelatatu dut bestaldea. Inor ez dagoela frogatuta, korridorea ahalik eta azkarren zeharkatu, eta komunean giltzapetu naiz. Makillajea atera eta ispiluaren aurrean aurpegia konpontzen saiatu naiz, esnatu berritan ez nago batere polit, eta ez dut Unaik horrela ikusterik nahi izaten.

Lasaiago zeharkatu dut korridorea sukaldera joateko, eder ez, baina bai ederrago. Paretik pasatakoan ez dut egongelako atea ireki ere egin, zuzenean

kafe makina piztu eta goiz usainez jantzi dut etxea. Berotu bitartean, mikrouhin-labearen parean jarri eta kristal aurrean ileak orraztu ditut behatz puntekin.

Koilara, kafea, sakarina, eta eseri egin naiz eskuak katiluaren epeletik gehiegi urundu gabe. Kafea zorabiatu dut, bere usain beroak ihes nola egiten duen bistatik galdu gabe. Noizbehinka, koilara katilutik atera eta ispilu moduan erabiliz begietara hurbildu dut, ezpainetara, masailletara, edertasunak eskapo egin ez didala ziurtatzeko.

Egongelako atea ireki dela sumatu dut. Hemen da Unai. Serio sartu da sukaldera, betzuloek ia begiak estaltzen dizkiotela; zaila da sofán eroso lo egitea. Atearen ondoan geratu da zutik, eta besterik gabe utzi egin nau. Ezin duela gehiago, denbora behar duela, egoera hau jasanezina dela. Ez dut ezer erantzuteko adorerik izan, agian nik ere berdin pentsatzen dudalako. Baina bizi naizen artean ez da beste inorena izango, ez. Buelta eman eta egongelarantz abiatu da berriro. Sukaldeko kaxoia ireki eta labanarik distiratsuena hartu dut. Nire begi izutien islari begira geratu naiz, herio ikusi dut.

Maiatzaren 2a

Barrote artetik paisaia ez da horren polita. Bost marra bertikalek irudia seitán zatitzen dute, eta begiek, altzairuzko barrek estalitakoa imajinatzen dute betazalak jaitsi eta argazki osoa ikusi ahal izateko.

Hemen begiratu besterik ezin da egin. Bakardadea ezereza da, eta ezereza ezin da usaindu, ezin da dastatu, ezin da ukitu. Bada hutsuneekin hitz egiten duenik, baita isiltasuna entzuten duenik ere; baina horiek zoroen gauzak dira. Begiratzea baino ez da geratzen hemen, eta ezereza ikusten dut, zuri-zuria, gelako hormen kolorekoa.

Mundua mundua da, eta ezereza ez da ezer, hala erakutsi zidaten bizitza eskubide bat dela sinestarazi zidaten berdinek, bizitza betebeharrak bat gehiago besterik ez denean. Betebeharrak bat, obligazio bat; ez da hori baino gehiago nahi dugunean hiltzeko eskumena lapurtzen diguten momentutik. Eskumuturrak bendatuta dauzkat oraindik, nire bizitza eskubideari uko egiteko bigarren saiakeraren markak estaltzeko. Mina estaltzen bada ez delako ikusten; eta ikusten ez bada, ez da.

Pilulak ekartzera etorri den erizainari eguna galdetu eta asteartea dela esan dit, bisita eguna zaintzapean gauden eroenontzat. Pilulen efektuarekin denboraren nozioa galtzen dut sarritan, eta egutegi mentalak ez dira oso fidagarriak nire buruan. Asteartea, eta ni ispilurik gabe.

Eskumuturrak ebaki nituen bigarren alditik ez dago objekturik nire gelan, ez ispilurik, ez koadrorik, ez boligrafozko, ez orrazirik; ezereza. Isla bat besterik ez dut behar, arratsalderako ile hauek txukundu eta ahalik eta politen agertzeko Unairen aurrean. Baina dudán isla bakarra argiak marrazten du lurrean, eta dimentsiorik gabeko orban beltz bat baino ez da, zimurrik eta inperfekziorik gabekoa, perfektua itxuraz; ni ez nau engainatzen ordea. Gaur ere bazkariko jogurtaren tapari buelta emanda moldatu beharko dut.

Maite dut Unai, maite nau, badaki eta badakit. Baina ni ez naiz sendatuko, eta bera ez da gaixotuko, badaki eta badakit. Urrun dauzkagu

buruak, bihotzak itsatsita izanagatik. Inoiz baino zoriontsuagoak izaten gara asteartero arratsaldeko bostetan, baina eroetxeko erokeria bat gehiago besterik ez da. Iraungitze data noiz iritsiko zain gaude, ez garelako lehengoak, eta badakigulako ez garela lehengoak berriz inoiz izango. Ez dut presarik, iritsiko da nire heriotza eskubidea gauzatzeko hirugarren aukera. Eta saiakera hutsean geratzen bada, lasai, ez dut presarik, bitartean astearte arratsaldeak biziko ditut.